

G.E.E. PRAKTIKAN JARTZEN

LLEVANDO EL M.A.S. A LA PRÁCTICA

AZAROAK 29 NOVIEMBRE - SEMINARIO - 10:00-14:00

Dokumentu honekin batera, Boluntarioen laugarren Gala: "MAS praktikara eramanez", eta aurten aurkeztuko diren hamar esperientzien fitxak biltzen ditu. Praktika zehatzak dira, non boluntarioek Caritasen Gizarte Ekintzaren Eredua (MAS) ikusarazten duten, pertsonen errealitatea, zaintza, komunitate loturak eta haien eskubideen defentsa erdigunean jarriz.

Bere helburua jarduera bakoitzari buruzko informazio zehatzagoa eskaintzea da: zer den, nori zuzentzen zaion, zer lortu nahi duen eta zein den boluntariotzaren zeregina. Galan zehar laguntza gisa balio dezake, eta geroko kontsulta material gisa, esperientzia horietan sakontzen jarraitzeko, taldeetan partekatzeko eta gure egunerokoan MAS praktikara nola eramaten dugun galdera berriak zabaltzeko.

1. PARROKIETAKO HARRERA

- **Zer da?**

Parrokietako taldeek osaturiko harrera eta gizarte laguntzako sarea, non pobrezia edo bazterketaegoeran dauden pertsonei eta familiei entzutea, eta laguntza bidelaguntza eskaintzen den.

- **Non egiten da**

Gipuzkoako 84 parrokiatan, talde bakoitzaren egun eta ordutegien arabera.

- **Nori zuzentzen zaio**

Orientazioa, gizarte laguntza eta beren auzoan edo udalerrian oinarritzko beharrezko erantzutea behar duten helduak eta familiak.

- **Helburu Nagusia**

Modu konprometituan laguntzea. Duintasuna, eskubideetarako sarbidea eta komunitate loturak indartuz.

- **Erreferentziako pertsona**

Jon Telletxea.

- **Kontaktua**

Tel.: 943 44 07 44 – Emaila: lurralde@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren zeregina**

Harreran eta entzutean parte hartzea, hasierako balorazioa egitea, orientatzea eta informatzea, jarraipena egitea eta laguntza materiala laguntzea, betiere parrokia taldearekin koordinatuta.

2. ELIKADURARAKO SARBIDE DUINA: SUPERMERKATUAN EROSTEKO DIRU TXARTELAK

- **Zer da?**

Laguntza ekonomikoko sistema, elikagaien loteak ordezkatzeko dituzten supermerkatu txartelen bidez, erosketan autonomiaz eta diskrezioz egiteko aukera ematen dutenak.

- **Nola funtzionatzen du?**

- Pertsona edo familia bakoitzari erreferentzia zenbaki bati lotutako txartel bat esleitzen zaio.
- Aldizka (hilero) txartela adostutako diru kopuru batekin kargatzen da.
- Kudeaketa Caritasetik egiten da kontrol taula baten bidez, eta supermerkatuak erosketen fakturak bidaltzen ditu, transferentzia bidez ordaintzen direnak.
- Supermerkatuan sistemaren arduradunarekin koordinazioa arina eta erraza da.

- **Zergatik aldatu dugu banaketa eredua?**

- Denbora eta energia laguntza pertsonal eta familiarrari eskaini ahal zaizkio orain.

- Autonomiarekin, aukera askatasunarekin eta komunitatearen inklusioarekin koherenteagoa den eredu baterantz aurrera egiten da.
- Elikagaiak biltzeko, biltegitratzeko, sailkatzeko eta banatzeko lan fisikoa murrizten da.
- **Lagundutako pertsonentzako onurak**
 - Erosketa egiteko eguna eta ordua aukeratzen dute eta euren gustuen, nutrizio beharren eta kultura gastronomikoaren arabera, zer elikagai erosi erabakitzen dute.
 - Elikadura ohitura osasungarriagoak eta anitzagoak bultzatzen dira, eta autonomia eta autogestio ekonomikoa indartzen dira.
 - Estigma saihesten da: txartela oharkabea pasatzen da eta ez ilararik, ezta banaketarik ere parrokan.

- **Erreferentziako pertsona**

Jon Telletxea.

- **KontaktuaTel.:**

- **943 44 07 44 – Emaila:** lurralde@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren zeregina esperientzia honetan,**

Familiaren egoera konomikoaren eta familia egoeraren balorazioa eta jarraipena egitea, kontsumo arduratsuari eta elikadura osasungarriari buruz hitz egitea eta zailtasununeetan hurbil egotea , laguntzaren erabileran konfiantza eta erantzunkidetasuna indartuz.

3. KALE LAGUNTZA

- **Zer da?**

Kalera irteteko jarduera, non boluntario talde bat kalean bizi diren edo egunaren zati handi bat pasatzen dutenengana hurbiltzen den, presentzia, entzutea, oinarrizko informazioa eta konfiantzazko lehen lotura eskainiz.

- **Non egiten da**

Plazak, arkupeak, atariak eta beste espazio publiko batzuk, Caritaseko zerbitzuekin eta tokiko sarearekin koordinatuta.

- **Nori zuzentzen zaio**

18 urtetik gorakoak, kale egoeran daudenak edo kalea bizitzeko, erlazioko eta gaua lo egiteko gune nagusi gisa erabiltzen dutenak.

- **Helburu nagusia**

Hurbileko lotura bat egitea, beharrak detektatzea, informazioa eskaintzea eta harrera, gizartelaguntza eta komunitate espazioetarako sarbidea erraztea.

- **Erreferentziako pertsona**

Pottoko – Emaila: etxegabeak1@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren zeregina**

Errespetuz hurbiltzea, hitz egitea eta entzutea, premiak detektatzea eta Caritaseko zerbitzuekin eta beste laguntza batzuekin lotzea, denboran zehar lotura mantenduz.

4. ZUBIA PROGRAMA

- **Zer da?**

Aldi baterako harreraetxebizitzak eta autonomiara eta integrazio komunitariora bideratutako gizarte eta hezkuntzalaguntza eskaintzen dituen etxebizitzaren bidezko gizarteratze programa.

- **Non egiten da Gipuzkoako lurraldean:**

11 etxebizitza hainbat udalerritan (horietako 5 partekatuta).

- **Nori zuzentzen zaio**

Bizitegi bazterkerian edo etxebizitza galtzeko arriskuan dauden eta eta prozesu honetan laguntza behar duten , baina hura kudeatzeko autonomia nahikoa duten familiei

- **Helburu nagusia**

Etxebizitza galtzea ekiditea, autonomia pertsonala eta familiarra indartzea eta etxebizitzari lotutako laguntza komunitarioa ziurtatzea.

- **Erreferentziazko pertsona**

Iñigo Martínez.

- **Kontaktua**

Tel.: 943 44 07 44 – Posta elektronikoa: zubia@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren eginkizuna**

Erlazio laguntza, eguneroko zereginetan laguntzea eta komunitatea eta ingurunearekiko lotura indartzea.

5. KUMME BULTZADA – LASARTE ORIA

- **Zer da?**

Gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden adingabeei laguntzeko eta eskola laguntza emateko gizarte eta hezkuntza programa, Lasarteko ikastetxeekin eta parroquia elkartearekin koordinatuta.

- **Non egiten da**

Lasarte Oriako parrokia.

- **Nori zuzentzen zaio:**

Lasarte Oriako haur eta nerabeak eta herriko parrokiako Caritasek lagundutako familiak.

- **Helburu nagusia**

Hezkuntza prozesua indartzea, aukera berdintasuna sustatzea eta familia eta komunitate loturak indartzea.

- **Erreferentziako pertsona**

(Zehazteke).

- **Kontaktua**

Tel.: 943 44 07 44 – Posta elektronikoa: bultzada@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren eginkizuna**

Eskola eta gizarte laguntza, eta haur eta nerabeentzako gune seguru eta hurbila sortzea.

6. GAZTELANIAKO ESKOLAK – BEASAIN

- **Zer da?**

Gaztelania ikasteko programa migratzaileentzat. Autonomia, eguneroko bizitza eta komunitatearen parte hartzea bultzatzeko oinarrizko hizkuntza eskolak eskaintzen dituzte.

- **Non egiten da**

Beasainen (Goierri gunea), Parrokiko Caritasen lokaletan.

- **Nori zuzentzen zaio**

Gaztelania ezagutzen ez duten edo ia menperatzen ez duten eta EPA (matrikula itxia edo gehiegizko intentsitatea) eskuratzeko zailtasunak dituzten migratzaile helduak. Profil ohikoena familia kargak dituzten emakume migratzaileena da; 40 pertsona inguruk parte hartzen dute.

- **Helburu Nagusia**

Oinarrizko gaztelania erakustea eta autonomia pertsonala indartuko duen eta gizarteratzea eta komunitatea erraztuko duen gunea hurbila sortzea.

- **Erreferentziako pertsona**

Ainhua Etxabe.

- **Kontaktua**

Tel.: 943 88 15 81 – Posta elektronikoa: goierri1@caritasgi.org

- **Boluntarioraren eginkizuna**

Gelan laguntzea, elkarriketarako laguntza eta ikaskuntza prozesuan hurbileko laguntza.

7. ALTZA BARATZA – DONOSTIA

- **Zer da?**

Gizarteratzeko programa okupazionala, Erkidegoko baratzeen bidez. Baratzeko lana eta laguntza integrala konbinatzen ditu, ohitura pertsonalak, sozialak eta lanekoak eskuratzeko eta autonomia sustatzeko.

- **Non egiten da**

Molinao Bidea z/g, 20017 Altza (Donostia).

- **Nori zuzentzen zaio**

18 eta 65 urte bitarteko pertsona helduak, batez ere Donostiako eta Ekialde 2ko parroketako Caritasetatik deribatuak, enplegarritasun ahalmenarekin.

- **Helburu Nagusia**

Gune okupazional egonkorra sustatzea, baratzearen kudeaketaren bidez autonomia pertsonala sustatzea eta gizarteratzeko eta laneratzeko prozesu komunitarioak uztartzea.

- **Erreferentziako pertsona**

Jon Vilar Etxeberria.

- **Kontaktua**

Tel.: 943 40 48 10 – Posta elektronikoa: lamorus2@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren papera**

Baratzan, eguneroko lanean laguntzea eta proiektuaren dimentsio komunitarioa indartzea.

8. BIDEAN – ARRASATE

- **Zer da?**

Gizarteratzeko zentro okupazionala, bazterketa egoeran edo arriskuan dauden helduak gizarteratzeko, hezkuntza , okupazio , lan aurreko eta psikosozialeko laguntzarekin.

- **Non egiten da**

Musakola 26, Pabiloia 20, 20500 Arrasate.

- **Nori zuzentzen zaio**

Gizarte bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden 18 eta 64 urte bitarteko pertsonak.

- **Helburu Nagusia**

Gizarteratzea eta laneratzea bultzatzea, ikuspegi integral batetik, eta erreferentzia gune egonkor bat eskaintzea, bizi-kalitatea eta autonomia hobetzen laguntzeko.

- **Erreferentziazko pertsona**

Agurne Juldáin Alcalde

- **Kontaktua:**

943 76 16 95 Posta elektronikoa: a.juldain@sarea.com

- **Boluntariotzaren eginkizuna**

Tailerreko jardueretan laguntzea, talde lana indartzea eta motibazio eta parte hartze komunitarioko prozesuak babestea.

9. LAMORUS TAILERRA

- **Zer da?**

Baztertze ibilbideak dituzten helduentzako gizarteratzeko zentro okupazionala. Jarduera okupazionalak eta laguntza integrala konbinatzen ditu eta ohitura pertsonalak, sozialak eta lanekoak indartu.

- **Non egiten da**

José Elozegi Alkatea 111, 20016 Donostia.

- **Nori zuzentzen zaio**

Pertsona helduak, bereziki 45 urtetik gorakoak, gizarte eta edo egoitza bazterkeria egoeran edo arriskuan, ibilbidearen barruan okupazio espazioa behar dutenak.

- **Helburu nagusia**

Narriadura pertsonala eta soziala saihestea, autonomia indartzea eta bizi kalitatea eta parte hartze komunitarioa hobetzen dituzten ohiturak hartzerantz bultzatzea.

- **Erreferentziako pertsona**

Gaizka Etxeandia.

- **Kontaktua**

Tel.: 943 40 48 10 – Posta elektronikoa: lamorus@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren eginkizuna**

Tailerreko jardueratan laguntzea, harreman giroa bultzatzea eta motibazio eta parte hartze prozesuak babestea.

10. EMPRESAS CON CORAZÓN – BIHOTZDUN ENPRESAK

- **Zer da?**

Programa honek aliantza egonkorak sortzen ditu enpresekin ekonomia justuagoa sustatzeko, enplegua, zerbitzuak, profesionalen jakitea, laguntza ekonomikoak eta materialak eta elkartasun kanpainetan parte hartzea batuz.

- **Gipuzkoa osoan egiten da, hainbat sektore eta udalerritako enpresa eta saltokiekin elkarlanean.**

- **Nori zuzentzen zaio**

Gipuzkoako enpresa, denda, erakunde eta enpresariei, pobrezia eta bazterketa egoeran dauden pertsonen eta familien bizi baldintzak hobetzen aktiboki inplikatu nahi dutenak, erantzukizun sozial partekatu batetik.

- **Helburu Nagusia**

"bihotzdun enpresen" sare bat ehuntzea, Caritasekin koordinatuta, benetako aukerak sortuko dituen (lan, prestakuntza, material eta harreman aukerak), eta gizartea justuagoa, inklusiboagoa eta pertsonen eskubideekin konprometituagoa izan dadin.

- **Erreferentziako pertsona**

Kontxi Elexpe.

- **Kontaktua**

Tel.: 943 44 07 44 – Posta elektronikoa: idazkari@caritasgi.org

- **Boluntariotzaren eginkizuna**

Enpresekiko harremanetan laguntzea (kontaktua, bisitak eta jarraipena), topaketa eta kanpaina solidarioak antolatzen eta dinamizatzen laguntzea, lagundutako pertsonen errealitateaz sentsibilizatzea eta lankidetzaren egonkorra, hurbila eta Gizarte Ekintzaren Ereduarekin koherentea izan dadin loturak zaintzea.